

**LAN IHARDUNALDIA EGUNEAN 8
ORDUKOA IZATEA LORTU ZUEN LA
CANADIENSE-KO GREBAREN MENDEURRE**

2019ko maiatzaren 1a



**ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO!
ANTOLAKETA GEHIAGO ETA KALEAN
BORROKA GEHIAGO**

cgt.org.es

@cgt

rojoynegro.info

Lanaren
Konfederakunde
Nagusia



Borrokatzeak balio du

Zalantza izpirik gabe zortzi ordutako lanaldia espainiar estatuko langile mugimenduaren lorpenik garrantzitsuena da. Lorpen hau Toronto Canadian Bank delakoa bazkide nagusitzat izanagatik “La Canadiense” bezela ezaguna zen Bartzelonako “Riegos y Fuerzas del Ebro” enpresan hasi zen 44 egunetako greba baten ondoren heldu zen.

Grebaren arrazoia soldata murrizketa bat onartzeari uko egin zioten 8 langileen kaleraketa izan zen. Jarraian ehungintza lantegietako beharginak grebara batu ziren, eta gutxira elektrizitate, ur eta gas hornikuntza sektoreko langilego guztia ere. Pixkanaka zerbitzu publikoen geldialdia erabatekoa izan zen: grebaren edota elektrizitate hornikuntza faltaren ondorioz lantegien %70a gelditu zeuden, gerra egoera ezartzera heldu zelarik.

Hala ere **CNT-ko anarkosindikalistek gidatutako langile mugimenduak ez zuen atzera egin,** eta 8 orduko lanaldiaren onarpena eta grebak iraun zuen aldiko soldaten erdiaren ordainketa ekarri zuen akordio bat lortu zen. Gainera gobernuak kausa sozialengatik preso zeuden guztiak askatzeko, gerra egoera kentzeko eta grebalari guztiak haien lanpostuetara errepresaliarik jaso gabe itzultzeko konpromezua hartu zuen. Guztia 1919ko otsaila eta martxoa bitartean gertatu zen. Beraz lorpen garrantzitsu honen 100 urte bete berri dira.

Orain 100 urte, lantegi batetan 8 langileekiko elkertasunean abiatu zen greba batek langilego guztiaren bizitza aldarazi zuen. Hain da horrela, 1919an bertan sortu zen OIT erakundeak berak, gertaera hura, 8 orduko lanaldia unibertsala bihurtu zuen haren lehen hitzarmena idazteko eredutzat hartu zuela.

Garaiak ez dira horrenbeste aldatu. Orain mende bateko langileek jasaten zuten lan zapalketa, beste prekarietate eta gehiegikeria patronalen bitartez, indarrean dirau. Ideologia totalitarioen gorakadarekin eta azken gobernuen lege atzerakoiekin askatasun publikoak mehatxupearan daude. Biztanlegoaren erdia indarkeria matxistaren mehatxu onartezina jasaten eta gutxitua izaten jarraitzen du. Aldaketa klimatikoa bera ukatzen dute eta merkatuek planeta gainustiatzea errazten da. Ez, garaiak ez dira hainbeste aldatu.

Horrexegatik, **gaur ere garai batetan izan zen bezala, langileriak bere burua antolatzea eta bere eskubideen zein askatasunen alde, gizonon eta emakumeon arteko berdintasun errearen alde, planetaren defentsan eta bizimodu duin baten alde kalera irtetea hain beharrezkoa da.**

“La Canadiense”ko greba eta ondorengo mobilizazioak garai hartako langilegoa mugimendu anarkosindikalistaren inguruan antolatu zelako posibleak izan ziren; gure klasearen antolaketaerako eredu onena zela egiaztatuz. Grebak, kalean borrokatzeak, gauzak eraldatzeko baliagarriak direla ere erakutsiz.



Lanaren
Konfederakunde
Nagusia

Gora LKN!

Gora langilegoaren borroka!

Gora maiatzaren 1a!